

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

164/2016 Dekretua. Zinegotzi baten eskuordetze berezia ezkontza zibila baimentzeko, 2016ko irailaren 2an

Ikusirik abenduaren 23ko 35/1994 Legearen artikulua bakarra, Kode Zibila aldatzen duena alkateek ezkontzarako baimena emateari dagokionez, zeinaren 51. artikuluan idazkuntza berriak lehen puntuan ezartzen baitu ezkontza baimentzeko eskumena erregistro zibilaren ardura duen epaileak eta ezkontza egingo den udalerriko alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak izango dutela.

Kontuan harturik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.s) artikuluan, artikulua horren 3. puntuan eta 23.4 artikuluan ezarritakoa, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 43, 44 eta 45. artikuluetan ezarritakoa,

Ebazten dut:

Lehenengoa. Diego González Fernández zinegotziari alkate honen eskuordetze berezia ematea baimentzeko 2016ko irailaren 2ko 12:00etan udaletxean egingo den ezkontza zibila.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi interesdunari jakinaraztea, hurrengo bilkuran udalbatzari haren berri ematea, eta ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Hirugarrena. Bat etorri azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44. artikuluan 2. idatz zatian xedatutakoarekin, dekretu hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak eskuordetze honek.

Bastida, 2016ko irailaren 2a

Jarduneko alkatea
IÑIGO PEREA GIL